

Kaligula zentzudunena

ERROMA, K.O. 37. Gaius Julius Caesar Germanicus gaztea enperadore izendatu zuten. Baina Kaligula ezizenez –eta agintaldi laburrean egindako aldrebeskeriengatik– da ezaguna.

Dantza eta antzerki ikuskizunen zale amorratua omen zen enperadorea. Ekitaldien amaieran, artistengana hurbildu ohi zen, muxuka, losintzan. Dantzari eta aktoreak suharki babesten zituen eta gozo jartzen zen zerbaitek edo norbaitek ikuskizuna eragozten edo eteten zuenean.

Suetoniok jaso zuenez, behin, Kaligulak oso gustuko zuen artista bat jardunean ari zela, ikusleetakoa bat zalaparta eta iskanbila sortzen hasi zen. Enperadoreak eskutitz bat idatzi zuen hantxe bertan eta ehuntari bati luzatu zion, zalapartariari eman ziezaion. Ehuntariak enperadorearen mezua Mauritaniako Ptolomeo erregeari helarazteko agindua eta gutuna bera eman zizkionean, ikusle gajoak ez zuen ezer onik espero. Bazekien enperadorea gogaitu zuela eta auskalo Kaligulak zer zigor krudel idatzi zuen eskutitz horretan.

Bizitzako azken bidaia izan zitekeena egin zuen, Ptolomeoren gortera iritsi zen eta gutuna eskura eman zion erregeari. “Mesedez, mezua dakarrena itzul dadila Erromara” irakurri zuen hark ozen. Mezuak ez zuen besterik esaten. Ikusle iskanbilatsua erantzat ez zegoen zigor krudelik. Baina bide luzea erabat larrituta eman ondoren, ederki damutu zitzaion ikuskizunean izandako jarrera, eta lezioa ederki ikasi zuen.

Garaiko iturri urriek Kaligula megalomanoa, ankerra eta apetatsua deskribatzen dute. *Incitatus* izeneko zaldi kuttuna kontsul izendatu zuela diote, arrebekin intzestuharremanak izan zituela, aristokraziako kide aberatsenak hil zituela haien ondasunak bereganatzeko... Mezuaren hartzailea bera ere, Mauritaniako erregea, Erromara egindako bisitaldi batean hilko zuen, Britainia konkistatzeko ahaleginen porrotak eta Inperioaren ekialdeko probintzietatik zetozkion berri txarrak suminduta. Agintaldiaren hasieran kudeatzeko gaitasuna zuela erakutsi zuen enperadore gazteak, baina gaixoaldi larri baten



METROPOLITAN MUSEUM OF ART

Kaligula (K.o. 12-41), beste asko bezala, sumindu egiten zen ikusleen zalapartak ikuskizuna eragozten zuenean.

ondoren burua galdu omen zuen, eta zentzu ona berreskuratzeko tarte handirik ere ez zuen izan, pretoriar guardiako kideek 28 urte besterik ez zituela hil baitzuten. Horrenbestez, tirano zoroaren irudia da iritsi zaiguna. Ikusle iskanbilatsua pasadizoa haren eszentrikotasunaren seinaleztat jo ohi da, nahiz eta beste protagonista bat izanez gero, jakinduriaz emandako leziotzat joko genukeen ziurrenik. Eta, antzokietan edo zine aretoetan, denok izan dugu inoiz ikusle berritsua Mauritaniako erregearengana bidaltzeko gogoia. ■

Arrastoak

Bigarren Mundu Gerrako hegazkinek klima aldatu zuten



INGALATERRAKO hego-ekialdeko kliman aldaketak eragin zituzten Bigarren Mundu Gerran eremu horren gainetik igaro ziren milaka hegazkin aliatuek, Birminghameko Unibertsitatearen azterketa baten arabera. Jakina da hegazkinen lorratzak kliman eragiten duela, baina urte haietako kontzentrazioa ez da sekula berdindu, eta adibide ezin aproposagoa da eragin

hori neurtzeko. 1944ko maiatzaren 11n 1.400 hegazkin britainiar eta estatubatuar irten ziren Ingalaterratik kontinentera bidean. Lainoak ugartitzea eta temperatura jaitea eragin zuen horrek; base militarretan, zehazki, 0,8 °C-tan egin zuten behera termometroek. Ikerlanaren ondorioak *International Journal of Climatology* aldizkarian argitaratu berri dituzte. ■